

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BILARKO UDALA

#### **Hasierako onarpena ematea 3/2016 kreditu gehigarriaren espedienteari**

Udalbatza osoak, 2016ko azaroaren 7an egindako bilkura berezian, 3/2016 zenbakiko kreditu gehigarriaren espedienteari hasierako onarpena ematea erabaki zuen.

Bat etorri 3/2004 Foru Arauak 34. artikuluan xedatutakoarekin, espediente hori jendaurrean jartzen da hamabost egun baliodunetz, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, epe horretan interesdunek aukera izan dezaten espedientea aztertu eta erreklamazioak aurkezteko udalbatzari.

Kreditu gehigarriaren espedientea behin betiko onartutzat joko da adierazitako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da hau.

Bilar, 2016ko azaroaren 9a

*Alkatea*

*GERARDO OLANO MEDRANO*